

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren erabakia, ikasle elkarteei laguntza kulturalak emateko barne araudiari buruzkoa

*(2011ko urriaren 27ko Batzarrean onetsitakoa)
(2016ko otsailaren 29an aldatutakoa)*

Justifikazioa

UPV/EHUko Estatutuek (2011ko otsailaren 24an argitaratuak) 20.2 artikuluan jasotzen dutenez, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren eginkizuna da “UPV/EHUren aurrekontuetan esleiturik duen aurrekontua nola banatuko den erabakitzea”. Gainera, Ikasleen Arautegiak (2012ko uztailaren 31n argitaratua) UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren eginkizunak arautzen ditu, eta zehazki, honako zeregin hau esleitzen dio: “Unibertsitate-hedakuntzaren antolakuntzan parte hartzea, eta, oro har, unibertsitateko kideen kultura-, arte- eta kirol-jardueretikiko interesa piztea, horretara bideratutako lanak babestuz eta bultzatuz”. Ikasleen Kontseiluak konpromisoa dauka UPV/EHUko ikasleen asoziazionismoa sustatzeko eta ikasleen elkarteen jarduerak bultzatzeko. Horren ondorio dira urtero jardueretarako ematen dituen laguntzak.

Elkarteentzako laguntzak modu orekatuagoan banatzeko, eta azken urtean jasotako zenbait hobekuntza proposamen aintzat hartuta, bai testuaren idazkerari eta bai laguntzak emateko irizpideei dagozkionak, Ikasleen Kontseiluko Batzorde Eragileak epe bat zabaldu zuen, 2015eko martxoan, elkarteek alegazioak egin zitzaion. Alegazioak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Ikasleen Gaietarako Batzorde Parekideari aurkeztu zitzaion idazkera berria. Bertan xehetasun batzuk aldatu ziren, eta horren ostean, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Batzarrari proposatu zitzaion arautegiaren behin betiko idazkera berria.

BARNE ARAUTEGIA, UPV/EHUko IKASLEEN KONTSEILUARENA, IKASLEEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZEI BURUZKOA

1.-. artikulua. Deialdiaren helburua

1. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak aparte onartuko du ikasleen elkarten jardueretarako erabiliko duen bere aurrekontuaren ehunekoa.
2. Diru laguntza deialdira aurkeztu ahal izango dira prestakuntza akademikoa, kultura edo unibertsitate hedakuntza osatzen duen edozein proiektu.
3. Finantzatzen diren jarduerak UPV/EHUko instalazioetan egin beharko dira, epaimahaiak baimentzen dituen salbuespenetan izan ezik.
4. Finantzatzen diren jarduerak irekiak izan beharko dira, hau da, elkartearen jardun eremuko edozein ikaslek bertan parte hartzeko modukoak.

2. artikulua.- Onuradunak

1. Deialdi honen onuradunak izango dira UPV/EHUko Elkarten Erregistroan sartuta dauden ikasleen elkarteak.

3. artikulua.-UPV/EHUko ikasleen elkarreentzat

1. Ikasleen elkarteek aurkeztu beharko dituzte eskariak horretarako onartzen den egutegiaren arabera. Egutegia UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak argitaratuko du, eta, betiere urtean bi epe egongo dira eskariak aurkezteko.
2. Elkarteko buruak eta diruzainak jardueraren proiektua zehaztuko dute, **AC1 eranskin**eko eredua erabiliz. Gutxienez, xehetasun hauek izango ditu:
 - a) Jardueraren helburuak.
 - b) Behin-behineko programazioa, jardueraren leku eta dataekin.
 - c) Aurrekontu osoa, zehaztua eta desglosatua, kanpoko finantzaketa ere zehaztuta, bai eta elkarteak aurreikusten dituen diru sarrera guztiak ere (izen emateak, kuotak edo sarrerak). Hasierako aurrekontuan aldaketarik egin nahi izanez gero, berehala eman beharko diote horren berri UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari.
3. Gauzak errazteko, eskariak posta arruntez edo posta elektronikoz aurkeztu ahal izango dira (UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren helbidea: ikasle.kontseilua@ehu.eus). Posta elektronikoz aurkeztuz gero, UPV/EHUko kontu instituzionaletatik bidali beharko dira, eta eduki beharko dute UPV/EHUren erregistroko dokumentazioan ageri den elkarteko buruaren edo diruzainaren sinadura eta zigilua.
4. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak eskaria osorik edo neurri batean onetsi edo ezetsiko du, eta horren jakinarazpena bidaliko dio elkarteari, horretarako eraturako epaimahaiak erabakia hartu bezain laster. Erabakian zehaztuko da kontseiluak zenbateko laguntza emango duen eta zein kontzeptutarako (**AC2 eranskina**: eskariaren baiespena edo ezespina).
5. Laguntza behin esleituta eta jarduera eginda, jardueraren arduradunak 6. artikuluko baldintzak bete beharko ditu.

4.-. artikulua. Balorazio irizpideak

1. Epaimahaia Batzorde Eragileko hiru kidek eta ikasleen arloan eskumenak dituen errektoreordetzako kide batek osatuko dute, eta burua Ikasleen Kontseiluko presidentea izango da, edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsona. Epaimahaiak egutegian zehaztutako epean ebatziko ditu eskariak.



2. Gehienez ere aurkeztutako aurrekontuaren % 80 esleituko da, baldin eta aurkeztutako eskari guztien totalak ez badu gainditzen deialdirako onartutako kopurua. Kasu hori gertatzen bada, dirua banatuko da lortutako puntuaren arabera, artikuluko honetako 5. puntuari jarraiki, Ikasleen Kontseiluko Batzarrak, Batzorde Iraunkorraren proposamenez, diru kopurua handitzea erabakitzen ez badu.
3. Salbuespenez, eta 500 €tik beherako jardueretarako, Ikasleen Kontseiluko epaimahaiaren esku geratuko da aurkeztutako aurrekontuaren % 100 ordaintzea.
4. Elkarte bakoitzak aurkeztutako jarduerak batera baloratuko dira. Eskatutako zenbatekoa, orotara, ezin izango da izan 6.500 eurotik gorakoa deialdi bakoitzean.
5. Onartutako eskarien totala deialdirako onartutako kopurua baino handiagoa bada, epaimahaiak irizpide hauen arabera puntuatuko ditu eskariak:

Elkarteari dagokionez:

- a) Elkartearen ibilbidea, egonkortasuna eta fidagarritasuna, proposatu duen jardueraren arloan. Gehienez ere 15 puntu.
- b) Aurrekontuaren zein portzentaje ordainduko den kanpoko finantzazioaz. Gehienez ere 10 puntu.

Aurkeztutako jarduera edo programari dagokionez.

- c) Jardueraren balizko hartzaileak: ikastegiko ikasleak, campuseko ikasleak, UPV/EHUkoak, edo UPV/EHUko eta beste unibertsitate batzuetako ikasleak. Gehienez 20 puntu.
- d) Proposatutako jarduerak segida izatea: baloratuko da lehendik jarduera bera egin izana, eta hurrengo deialdietan berriz egiteko asmoa izatea. Gehienez 12,5 puntu.
- e) Programa edo jardueran euskara erabiltzea, bai pertsonen eta bai erabilitako materialetan (zabalkunderako baliabideetan). Gehienez 20 puntu.
- f) Gizarte erantzukizuneko ekintzak izatea, hau da, bultzatzen dutenak berdintasuna, ingurumenarekiko konpromisoa, garapen jasangarria, gizarte ekintza eta giza eskubideen errespetua. Gehienez 12,50 puntu.
- g) Jardueraren interes kulturala: gehienez 10 puntu.

Elkartearen edota jardueraren jarraikortasuna baloratuko dira kontuan hartu barik elkartea lehen izena emanda egon zen UPV/EHUko elkarteen erregistroan.

Eskatutako zenbatekoen guztizko batura ez denean deialdiko aurrekontua baino handiagoa, arautegi hau betetzen duten eskari guztiei emango zaie laguntza. Hala ez denean, epaimahaiak emandako puntuaren arabera, honela banatuko da laguntza:

Lortutako puntuak	Aurrekontu osotik emango den ehunekoa
20 eta 40 artean	% 20
40 eta 60 artean	% 40
60 eta 80 artean	% 60
80 eta 100 artean	% 80



6. Elkarteez epetik kanpo aurkeztu ahal izango dituzte eskariak, emandako laguntza guztiek horretarako dagoen aurrekontua agortu ez badute. UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluko Batzorde Eragileak ebatziko du halakoetan zenbateko laguntza esleitu, aurretik aipatutako irizpideen arabera.

5.-artikulua.- Justifikazioa

1. UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluak gastuen justifikaziorako dokumentuak emango dizkie elkarteei (**eranskinak: AC3 eta AC4**)
2. Jardueraren arduradunak hilabeteko epean, eta betiere azaroaren 30a baino lehen, justifikazio memoria bat aurkeztu beharko du, honako informazio hau jasoko duena:
 - a) Jardueraren memoria, gutxienez atal hauekin:
 - i. Jarduera nola joan zen azaltzen duen deskribapen laburra, ahal dela, frogekin (argazkiak, hedabideen aipamenak, bideoak).
 - ii. Jarduera egitean izandako gorabeherak.
 - iii. Hasierako proiektuaren aldean jardueran izandako aldaketak, eta haien arrazoa.
 - iv. Jardueraren arrakastaren balorazioa.
 - b) Epaimahaiak onartutako gastu osoa justifikatzen duten jatorrizko fakturak. UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluaren izenean bakarrik egon beharko dira berak esleitutako zenbatekoari dagozkionak. Deialdi honetako diru laguntzarik ez daukan aurrekontuaren parte ordaindu izana justifikatzen duten fakturen kopiak.
3. Gastuak dagokion epean justifikatu ezean, laguntza erretiratu ahal izango da.
4. UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluak gastuak ordainduko ditu behin egiaztatu ondoren betetzen direla arautegi honetan eskatutako baldintza guztiak, eta bertan eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu direla.

6. artikulua.- Esleitutako diru laguntza ordaintzeko baldintzak

1. Ikasleen elkarteei esleitutako laguntzak ordainduko dira fakturak behin aurkeztu eta gero, eta arautegi honetan eskatutako baldintza guztiak bete ondoren.
2. Deialdi honetako diru laguntza izan duten jardueren inguruko argitalpen guztietan edo propaganda material guztietan UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluaren eta UPV/EHUKo anagramak azaldu beharko dira, UPV/EHUKo estilo liburuari jarraiki. Era berean, jardueraren arduradunak epaimahaiak bere erabakian esandako ale kopurua bidali beharko du jarduera justifikatzeko.
3. Kontzertuen edo ikusle kopuru mugatuarentzako jardueren kasuan, eskarian zehaztu beharko da gehienez zenbat ikusle sartu ahal izango diren. Kopuru hori baino pertsona gehiagok ematen badu izena, ordenaren arabera onartuko dira izen emateak, eskarian ez bada arrazoitzen beste irizpideren bat erabili beharra.
4. UPV/EHUK zerbitzuak esleitu dizkien enpresetan edo bere Argitalpen Zerbitzuan kontratatu beharko dira jarduerari lotutako bidaia programatuak, ostatuak, autobusen alojera eta edonolako material grafikoren maketazio eta inprimaketa.
5. Ikasleen Kontseiluko diruzainak nahi dituen argibideak eskatu ahal izango ditu, eta hamar egun naturaleko epean eman beharko zaizkio. Erantzun ezean, eskaria bertan behera utzi dela ulertuko da.
6. Justifikatutako gastua eskarian aurkeztutakoa baino txikiagoa bada, Ikasleen Kontseiluak onartutako ehunekoa ordainduko du, justifikatutako zenbatekoa erreferentzia hartuta.

8. artikulua.-Deialdian sartzen ez direnak

Honako kasu hauetan ez da laguntzarik emango:

1. Eskatutako kopurua zuzendu denean gainfinantzaketa eragozteko, eta horren ondorioz eskatutako zenbatekoa hutsean geratu denean. Gainfinantzaketa esaten zaio aurreikusitako sarrerak (eskatutako diru laguntza guztiak barne) aurreikusitako gastuak baino handiagoak izatean.

Deialdi honen bidez ordainduko ez diren gastuak.

2. UPV/EHUko ikasle edota irakasleek ezin izango dute ordainsaririk jaso ekintzok antolatzeagatik. Dietak baino ez dira ordainduko: joan-etorriak, ostatua eta bazkaria. Horretarako, kasuan kasuko inprimakiak bete beharko dira. UPV/EHUtik kanpoko hizlariak ezin izango dute 60€ baino gehiago kobratu egun eta hitzaldiko, dietak kontuan hartu barik.
3. Gastuen justifikazioan ez da onartuko hizlariarentzako oparien fakturarik, aurretik epaimahaiak baimendu ez baditu.

9. artikulua.- Deialdi honetarako gehieneko zenbatekoa

1. Kultur jarduerak egiteko urteko zenbatekoa Gobernu Kontseiluak urteko aurrekontuan UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari esleitutako eta transferitutako kopuruak mugatuko du.

10. artikulua.- Epaimahaiak bere erabakia berraztertzea

1. Laguntza ukatuz gero, eskatzaileek alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote epaimahaiari, nahi duten dokumentazioa erantsita. Epaimahaiak onartu ahal izango ditu alegazioak eta eskaria onartu, baldin eta lehen txandan esleitutako diru laguntzekin partida osoa agortu ez bada. Diru laguntzetarako kreditua agortu ez bada, epaimahaiak ebaluatu beharko ditu alegazioak eta erabaki jarduera horri diru laguntza eman ala ez, betiere gastua handiagoa ez bada Ikasleen Kontseiluak onartutakoa baino.

11. artikulua.- Arautegia ez betetzea

1. Arautegi honetako baldintzaren bat betetzen ez bada, Ikasleen Kontseiluak uko egin ahal izango dio diru laguntza ordaintzeari.
2. Era berean, kontseiluak uko egin ahal izango dio laguntza ordaintzeari, elkarrekin egindako jarduera nabarmen alden du bada aurkeztutako proposamenean deskribatutako jardueratik.